

«Indarkeria obstetrikoa indarkeria matxista da»

Nola kontatu bihotzez egindako elkarriketa bat. Nola jasoko dituzu, irakurle, bero-bero sentitzen ditudan hitzok. Ezin eskuzabailagoa izan zara, Estitxu, goxoa bezain ausarta. Mila esker.

Michel Odent obstetrak erran zuen: mundua aldatzeko, jaiotzeko moduak aldatu behar du lehenik.

Jaiotzeko modua ikaragarri aldatu da azken mendean. Emakumeak bazuen askatasun esparru bat, garai psikosexualak ulertzeko eta akonpainatzeko modu bat. Emaginak, sorginak ziren hor gehien zekitenak. Mendetako jazarpenaren ondorioz, haien jakinduria galdu da, senda-lanekin eta sendabellarrekin lotutakoa, gure gorputzen erritmoen ingurukoa, eta bihurtu da arrunt teknologiko, mekaniko, biologiko; ez gaituzte inola ere hartzen ikuspegi psikosozial batetik. Biomedikuntza eta patriarkatua elkartu dira. Nik uste dut ez garela konturatzen mundu honetan bizi garen pertsonak nola jaio garen: adinekoak kenduta, bertzeak inguru erabat medikalizatu batean sortu gara, eta gehienak gure amarengandik bereizi gaituzte.

Pentsatzen da horrek ez duela markarik uzten.

Joan den mendeko bigarren erdialdean anestesiarik gabe egiten zitzaien ebakuntza ume jaioberriei, sentitzen ez zutelakoan. Eta emakumeak erditzen ziren sekulako presio eta minarekin, inolako laguntzarik gabe eta bakarrik; edo erabat lokartuta. Bi mutur horiek zeuden. Ikerketa zientifikoak gero eta gehiago ari dira frogatzen:

ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR

«SORTZE BERRI BAT, INDARKERIA OBSTETRIKORIK GABEA» LIBURUAREN EGILEA

Indarkeria ikusezin bati ahotsa jarri dio psikologo perinatalak, sistema zuzenean seinalatuz, gainera. Batez ere amen testigantzaz osatutako lan kolektiboa da.

Maidar IANTZI GOIENETXE

tzen: lehen hiru urteetan jartzen da gure oinarri emozional guztia. Noski eragina duela nola jaiotzen garen eta nola tratatzen ditugun emakumeak. Eta ez balu izan ere, indarkeria obstetrikoa emakumeen eta umeen kontrako indarkeria da. Eta indarkeriak ezin du existitu, gutiago osasun sisteman.

Emily Martin antropologoak dio emakumeak makinak bezala tratatzen direla.

Modu zehatz batean funtzionatu behar dute produktua, umea, ahalik eta hobekien ateratzeko. Hori gidatzeko teknologia dago. Emakumeak erraten duena ez da informazio fidagarria. Profesionalek sentsazioa dute eurek salbatu behar dutela prozesua, emakumea ez dela gai. Bere gorputza akastuna da, perfektua gizonarena da.

Horrek ez du kentzen behar denean teknologia erabiltzea.

Eskerrak hor dagoen, bertez naz ume batzuk ezin direlako jaio. Baina erabil dezatela behar denean, eta emakumeak nahi duenean. Lehenengo araua, muturrera eraman behar dena da zer nahi duen emakume horrek. Aditu zaio? Errespetatzen da? Esplikatu zaio dena eta erabaki dezake? Gaur egun, oraindik, anitzetan ez. Bere partez erabakitzen da. Indarkeria obstetrikoren definizioen artean Jesusa Ricoy Olariaga aktibistarena gustatzen zait: jarraipen gineko-obstetrikotan ematen diren zenbait praktika edo jarrera dira, ahoz zein ekintzaz, amen eta umeen erabakiak, desirak, eskubideak, beharrak, emozioak eta duintasuna kontuan hartzen ez dituztenak. Hori da ikusten duguna, izebergaren

punta, indarkeria zuzena. Fisiokoa normalean gehiegizko medikalizazio bat izaten da, ez ulertzea hamarretik zortzi erditze fisiologiko normalak direla. Bi bai, arrisku handikoak dira eta eskerrak teknologia. Bertzetik, indarkeria psikologikoa ez informatzea da, emakumearen erabakiak ez errespetatzea.

Azpian daude egiturazko indarkeria eta sinbolismoa.

Indarkeria bat da, erabat onartua, uste dugulako justifikatuta dagoela boterea erabiltzea, emakumearen eta umearen onbeharrez. Denok uste dugu hori: profesionalak horregatik ez du indarkeria nahita egiten; emakumeak berak ere ez daki anitzetan indarkeria pairatzen ari denik, “egin egin behar dena”, dio; eta jendarteak, “berriro ero hauek, histeriko hauek, zer uste dute dela bada erditzea eta ama izatea?”.

Sufrimendurekin lotzen da, emakumea bera bezala.

Emakumeak pairatu behar du sufrimendua, eta isilik egon. Hori da kulturalki duguna, eta honekin ez naiz profesionalak seinalatzen ari, osasun sistema hau baizik. Hori aldatzeko lehenengo indarkeria estrukturala eta sinbolikoa aldatu behar dira.

Plazara atera duzu gaia.

Hagitx inportantea da hori, emakumeen kontrako indarkeriarik ikusezinena delako. Testigantzetan, ama batek, Iratik, galdetzen du: indarkeria matxista jasan duten emakumeen telefonora deitzen badut erranez indarkeria obstetrikoa pairatu dudala ospitalean, onartuko dute? Inork ez du horrela ikusten, baina indarkeria obstetrikoa

emakumeen kontrako indarkeria da. Ez pentsa erraza egin zaidanik liburua ateratzea: zailantza egin dut, beldurra sentituta dut. Ez da proiektu inola ere partikular bat, erabat kolektiboa dela sentitzen dut.

Hamahiru emakume zaudete liburuan. Gehi aipatzen dituzun autore feminista guztiak.

Hamabi testigantza daude, eta nire atzean sentitzen ditut, baita bere erditzea kontatu didaten ehunka amak ere. Orduan, indar handi bat sentitzen dut. Baina egia da ikusezina den eta hagitz gutik onartzen duten indarkeria bati ahotsa jartzea, pentsatu egin behar dela. Helburua horixe erratea da: “Aizue, hau ere indarkeria matxista da”. Nazio Batuen Erakundearen hiru ebazpen izan ditugu munduan, bat liburuko testigantzen artean agertzen den Nahia Alkortaren salaketatik etorria. Euskal Herriko ospitale bat seinalatzen du eta erantzukizuna eskatzen dio. Ez da betetzen ari, baina hor dago, eta zer oihartzun izan du? Borroka feministaren lehen leerroan egon beharko litzateke, beste edozein indarkeria legez.

Oraintxe atera duzu lana, baina gairik duzu beldur hori? Zein erantzun izaten ari zara?

Ongi nago, indartsu, erantzunak onak dira. Emakumeek eskertzen dute ahotsa jarri izana. Babestua sentitzen naiz benetan ikusten dutenengandik, baina nahiko nuke ikusten ez dutenek ere irakurtzea.

Ez inori errua botatzeko, baina zik eta hobetzeko.

Hobetzeko, gardentasuna hagitz inportantea da, Euskal Herriko ospitaleetan nola artatzen den jakitea, batez ere ze



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA

IBILBIDEA 1975ean

Lesakan jaioa, psikologo perinatala da Estitxu Fernandez. Ehunka ama akonpainatu ditu Erroa elkartearen Xirimiri hezkuntza proiektuko kide ere bada. 2013an “Gure erditzearen jabe” lehen liburua atera zuen, eta iaz “M ama eme ume”, Erika Lagomarekin batera.

esku hartze maila dagoen. Ez dute daturik argitaratzen. Lehenengo ebidentzia zientifikoa zabaldu behar da, eta gero, praktikak hortik abiatzen direla ziurtatzen dugunean, oraindik ere ez gaudelako hor, ez da erdian jarri behar protokoloa, emakumea jarri behar da. Hori da profesionalak feminismoan formatzea: emakumeak erraten duena errespetatzea. Bere gorputza da eta berak erabakitzen du.

Emakumea entzun behar dela behin eta berriz aipatzen duzu. Benetan entzun.

Hori arrunt inportantea da. Badago heldukeria handi bat. Tratu deshumanizatua ematen da batzuetan. “Umea egiten ari zinenen ez zinen hainbertze kexatzen”, zenbat

erditze gelatan entzuten dugun. Mehatxuak ere bai: “Ez baduzu ongi bultzatzen, lokartu egin beharko zaitut”. Horrela tratatzen da emakumea erditzean. Gehiago gaztea baldin bada, arrazializatua, lehenengo umea badu... Beste intersekzio batzuk daude, baina emakume guztiok pairatzen dugu indarkeria obstetrikoa.

Lehen testigantza ematen duena Irene medikua da.

Ez zuen erran nahi, bazekiela gehiago egon zirela bere gainean. Hor ikusten da intensio ona. Zaindu nahi dute. Egiteko moduak aldatu behar dira. Zaindu nahi baduzu, derrigor entzun behar da emakumea, eta erraten duena sinetsi eta defendatu. Feminismoan ez ezik, profesionalak psikolo-

gia perinatalean ere formatu behar dira. Amazaroa ez da orain deskubritu; badira urteak badakiguna amaren garuna aldatzen dela haurdunaldian, eta erditzean erabat. Egundoko indarra du baina hagitz zaurgarri dago, oso-oso sentikor. Umea koskortu arte ez da aldatuko garuna.

Zer gehiago behar dute osasun langileek?

Ez daude baldintza onetan, 24 orduko guardietatik hasita, ratioak, presak, datu onak edukitzeko presioa. Batzuetan umeei gauzak gertatzen zaizkie erditze geletan, edo indarkeria ikusten da; nola integratzen dituzte gertaera horiek profesionalek? Zein zaintza dute? Giza baliabideak eta baliabide materialak behar di-



tuzte. Prestatuta daude kirola-
noak azala azalarekin egiteko?
Gero eta gutiago banatzen di-
tuzte ama eta umea, bazen or-
dua! Hori ez baitago justifika-
tuta inondik inora, bakarrik
bizitza arriskuan dagoenean.

**Ikerketek diotenez, hamarre-
tik hiru edo lau emakume
ateratzen dira traumatizatuta
bere erditzetik.**

Trauma sufrimendu emozio-
nal gorena da. Istripu, honda-
mendi eta gerretan gertatzen
da. Erditze bat horien pare
egon liteke. Traumak zerikusia
du ez hainbeste egiten ari di-
ren horrekin baizik eta zerbait
gogorra gertatzen ari denean
trataturik sentitzen zaren mo-
duarekin. Bakardadearekin,
mehatxuekin, ez kontuan har-
tzearekin du zerikusia. Izan
daiteke zehaztua urgente bat
errespetatua, eta ez sortu trau-
marik. Erditzeak ezin du trau-
ma bat izan. Gehienetan, arris-
kukoa ez bada, akonpainamendu on bat
behar du bakarrik: entzun, si-
netsi, errespetatu. Hain da sin-
plea... Amarekin solas egin
behar da: “Poltsa puskatzen
badizut hau gerta liteke. Zer
iruditzen zaizu?”. “Ez, ez dut
nahi”. “Ados”. “Nahi dut”. “Ba-
le”. Demagun esku hartze bat
egiten duela eta zerbait oker-
tzen dela, emakumea informa-
tu bada eta berak erabaki ba-
du, ez da kexatuko.

**Mundu osoko emakumeek
gauza bera eskatzen dute:
errespetua. Ez erditze ideala.**
[Haserretu egiten da honekin]
Ehunka emakumerekin egon
naiz eta gehien entzun dudana
esaldia da “nik nahiko nuke
epiduralik gabe, gai banaiz”.
Idealizatuta? Kontrakoa, bel-
durtuta daude, ez dute kon-
fiantzarik beren buruan. Trau-



matizatuta ateratzen diren
emakumeak ez dira erditzea
idealizatu duten emakumeak;
indarkeria pairatu duten ema-
kumeak dira. Indarkeria era-
biltzen den guztietan ez da
emakumea traumatizatzen.
Baina erditze traumatiko de-
netan dago indarkeria.

Zein eragin ditu traumak?
Eragin zabala du, epe labur
eta luzera. Lehenengo, ema-
kumearengan: gerta liteke
kaka edo pixa galtzea bizi
osoan, umetokia galtzea,

*«Ez da protokoloa
jarri behar erdian,
emakumea jarri
behar da. Hori da
profesionalak
feminismoan
formatzea:
emakumeak erraten
duena errespetatzea.
Bere gorputza da eta
berak erabakitzen du»*

umetoki lepoa urratzea...
hainbat lesio gerta litezke.
Umearengan berdin: ebakiak,
lepauztaia puskatzea... Psiko-
logikoak ere bai: trauma on-
doko estresa, depresioa, to-
kofobia... Ondorio larriak
dira. Gainera, trauma bizi
osorako da. Zauria senda de-
zakezu, baina birtraumatiza-
tu daiteke. Zenbat emaku-
mek pairatu dugu sexu
abusuren bat. Pentsa emaku-
me hori erditzen, birtrauma-
tizatu dezakegu, epidurala ja-
rriz atzetik ezer erran gabe.

Ama bat ateratzen da akaso
zehaztua batetik, ebakuntza bat
da, eta lehenengo gauza erra-
ten diotena ospitalean da “oi-
nez ibili beharko zenuke pixka
bat”, eta igual ezin du. Gainera,
ume bat zaindu behar du. Nola
sortuko da bien arteko lotura?
Horrek ondorioak dakartza
umearen osasun mentalean.
Horretaz aparte, ume horrek
ere pairatu du indarkeria.

Traumak emakumearen ha-
rreman sexualean, bikote ha-
rremanetan eta harreman so-
zialean eragiten du. Hain
denez ikusezina, ez da ulertua,
eta bakarrik dago.

**Profesionalengan ere baditu
ondorioak.**

Bakartxo emaginak primeran
azaltzen du: ez da pertsona ba-
tek egiten dizuna, giroa da,
ikuspegi mekaniko hori, baka-
rrik produktua begiratzekoa,
ama ez entzutekoa. Nahi gabe,
giro horrek eramaten zaitu
prozesua kontrolatzera, ema-
kumea etzanda monitoreetara
konektatuta uztera...

**Ahaldunduta joan zaitezke,
eta ez balio izan.**

Saioak hori dio, bere ustez
ahaldunduta joan zen, baina
ez zen nahikoa izan. Zure inti-
mitate osoa agerian dago erdi-
tzean, zure umea, gauza guz-
tien gainetik babestu nahi
dizuna. Ez da erraza autorita-
teari kontra egitea. Gainera, ez
dagokigu. Emakume bakoitza
iritsiko da ahalduntze maila-
ren puntu batean. Profesiona-
lari dagokio denak errespetu
berdinarekin artatzea.

**Nolakoa izan da liburua idaz-
teko prozesua?**

Duela hamar urte idatzi nuen
“Gure erditzearen jabe”, ebi-
dentsia zientifikoari tokia egin
nahian, erditze fisiologikoa

onuragarriagoa baita teorian emakume eta umeentzat, eta ahalduz jarri nuen indarra. Ez nuen hainbertze indar jarri indarkerian, eta garbi nuen honi buruz idaztea tokatzen zela. Julene Armendariz lagunak eta biok, osasun mental perinatala sustatzeko, Erroa elkarte sortu genuen. Bertan ehunka emakume entzun ditugu. Hortaz, indarkeria pairatutako emakumeak topatzea ez zait zaila egin. Kasu desberdinak ikusi nahi nituen: Irene medikua, Irati abokatu gaztea, Kris preso dagoen ama, Nahia NBERen ebazpena lortu duena, indarkeria judiziala ere esplikatzen duena. “Uste duzu hona iritsi nahi nuela?”, dio, “nahikoa nuen erran izan balidate: ez dut nahita egin, baina ikusten dut zuri min handia egin dizula”. Kontrara, Saioaren testigantza dago, non Katalunian, Sant Pau ospitalean, ginekologia buruak deitzen duen bere testigantza irakurri eta gero. Entzuten du, eta erraten dio “arrazoi duzu”. Eta Saioak erabakitzen du bigarren umea han edukitzea. Hori da erreparazioa. Zergatik kostatzen zaio Euskal Herriko osasun sistemari hori hainbertze?

Uxuek lagundutako ugalketa tekniketan dagoen indarkeria erakusten du.

Nola sartzen garen gorpil horretan, gure gorputza makina nola bihurtzen duten, azkenean produktu hori lortu arteko bidea, sufrimenduz betea. Arrunt hotza, biomedikuntza-ren izebergaren punta, sabeleko alokairuen ondoren. Dolua ere agertzen da. Eta trauma.

Profesionalen ahotsa ere jaso duzu.

Ibone Olza psikiatra perinatala nazioartean hagitz onartutako

«Nire militantzia hori da: ama eta umearen arteko harremana erdigunean jartzea prozesu osoan. Erditzean ere bai. Hori egingen bagenu, benetan sinesten dut bertze jendarte bat izanen genukeela. Baina benetan»

ahotsa da eta behar nuen berak erratea hau. Elena Vall d'Hebroneko ginekologia burua eta Generalitateko Berdintasun arloan aholku batzordeko burua da. Zientziaren ikuspegi androzentrikoa azaltzen du. Bakartxo emagina elkarriketatu nuen azken-azkena. Berak azaltzen du nola den posible gure prozesu fisiologiko-sexualekin hain konfiantza eskasa edukitzea emakumeok, eta bertze prozesu fisiologikoekin ez. “Etorriko zara nire etxera afaltzera?”. “Ez dakit bihotzak aguantatuko duen hemendik zure etxera”. Hori ez dugu inoiz erraten.

Bigarren parte bat dago, “Norantz ari garen”, esperantzari leiho bat irekitzen diona.

Zalantza egin genuen Garazi Arrula editoreak eta biok, eta aparte jartzea erabaki genuen. Badaude profesional erogarriak Euskal Herrian. Badakite emakumea errespetuz tratatzen, feminismotik, emozionalki akonpainatuz. Ez bakarrik emagin eta ginekologo solteak, badaude zenbait ospitale ere pixkanaka ari direnak eta hori ere erakutsi egin behar da. Testigantzetan badaude hiru emakume erditze errespetatuak izan dituztenak, Itziar, Julene eta Arrate.

Sarreraren Historiaurreraino joan zara. Ama-ume libidoa zegoen erdigunean.

Nire militantzia guztia hori da: ama eta umearen arteko harreman libidinal hori, garai sexual hori errespetatzea eta erdian jartzea, haurdunaldian, erditzean, erdiondoan, umeak sei urte izan arte. Hor arnasten da: “merezi dut zaintza hau, zaindu naute beraz zainduko dut”. Gainera, maitasun erromantikoa ere deseraikiko litza-teke, orain gizon-emakumeen arteko libidoa baitago erdigunean. Hori egingen bagenu, benetan sinesten dut bertze jendarte bat izanen genukeela.

